

Zizareak eta kaioak

Euskaldunon Egunkaria, 1991-09-17: 2.

Zizarea ez da harra, baina familia berekoak dira; hau usteletan sortzen da eta zizarea ez; bada hestetan sortzen denik ere, baina nik lur heze-umeletan bizi dena aipa nahi dut orain, zeren eta biologoa den nire lagun bat behin gure bidea gurutzatzen ari zen zizare bat zanpatu egin nuen oinaz axolakabekeria handiz, eta: "eh!"... irten zitzaion oihua, ez zizareari, niri lagunari baizik: "... ez zazu hori egin, zizareak mesede handiak egiten ditu eta!". Harrez gero, zein oinkatzen dudan kontu handia egiten dut, zizarea ere Eboluzioan geure aintzineko senide biziduna bait da. Mania batzuk sartzen hasi zaizkit, baina ez dut nire kontzientzian honelako krimenik eraman nahi; eta hala, behaketa zientziaren ama denez gero, ustekabeen joan naiz zizareen bideak aztertzen, eta konturatu naiz hezetasuna dutela maiteen; eurizaparrada baten ondoren mugitzen direla pozik, eta poz honek, edo uraren eraginez, eurijasa horren urren aurkitzen ditudala nire bidean, uholdeak goitik behera igeri ikarri balitu bezala... Baina euria geratu eta eguzkia irtetzen den bezain laster geratzen dira bidean makailu lehorra bezain siku hilak. Herenegun bota zuen ur-tronbaren ondoren kaioak maldik ez duen futbol zelaia betetzen zutela ohartu nintzanean, konturatu nintzen euri tantek lurretik atera zituen zizareak jaten ari zirela ur saltsako bere biziko bankete zuri hartan! Eta kupitu egin nintzen, harrak ere diren zizareei bizia errespetatu behar bait zaie, eta, hala ere, itsasertzeko kaioei ez gutxiago, Hondarribiako festetan arrantzarik egin ez delako!

Politikaz ere gure herriak bizi duen nahaspilaz zerbait esan nahi nuen, baina nire 25 lerroak joan zaizkit zozokeria honetan!